


Gazteriaren erdia baino gutxiago sentitzen da europarra

Europar sentimendua zabaldu da azken urteotan


Europako eguna dela-eta (**maiatzak 9a**), Euskadiko gazteen artean europar-sentimenduari hedapenari buruzko datuak plazaratu nahi ditu [Gazteen Euskal Behatokiak](#).

Horretarako, Euskadiko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri zenbateraino sentitzen diren europarrak galdetu diegu. Galdera hau Gazteen Euskal Behatokiaren hainbat inkestatan errepikatu da, azkenekoa 2016ko lehen hiruhilekoan eginikoan, *Euskadiko gazteak* bildumaren barruan. Bertan emandako erantzunak hartu ditugu oinarri.

2016ko emaitzak ikusita, esan dezakegu Euskadiko gazteen erdiak baino gutxiago (% 45) sentitzen direla oso edo nahikoa europarrak. Izan ere, gehixeago dira europarrak sentitzen ez direnak (% 49), horrelako sentimendua dutenak baino (% 45). Gainerako % 6k ez dute iritzirik azaldu.




Bere burua oso edo nahikoa europartzat jotzen duten 30 urtetik beherako gazteen ehunekoak gora egin du 2016an, 2012ko jaitsiera izan ondoren (orduan krisialdi ekonomikoaren ondorioz Europak ezarritako politika ekonomikoaren kontra ageri zen biztanleria), eta orain 2000 urtean hasitako seriearen punturik altuenean kokatzen da gazteen europar-sentimendua.



Europar Batasunarekiko konfiantzari dagokionez, 2016an 18 eta 29 urte bitarteko gazteen

% 47k konfiantza zutela adierazi zuten, Euskadiko 18 urtetik gorako biztanleriaren batez bestekoaren gaineratik (% 39).

Gainera, adin horretako gazteen % 43ren ustez Europar Batasuneko kide izatea "gauza ona da". Kasu honetan gazteen eta 18 urtetik gorako biztanleria orokorraren iritziak antzekoak dira (biztanleria orokorrean % 45ek uste dute hori).



Europar Batasunarekiko konfiantzari eta Europar Batasuneko kide izatearen balorazio positiboari buruzko datuak Lehendakarietzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak 2016an argitaratutako txostenetatik datoz, *Euskal Soziometroak 60 eta 61*, hain zuzen.